

## BAT-BATEAN, KULTURA ZIENTIFIKOA BILAKATU DA EGOERA ULERTZEKO ETA INTERPRETATZEKO EZINBESTEKO TRESNA



esponentziala, EPI, ZIU, PCR, pikoa... Ez da egongo hitz horiek aipatu ez dituenik. Bat-batean, kultura zientifikoa eta hari lotutako kritikotasuna bilakatu dira egoera ulertzeko eta interpretatzeko eguneroko eta ezinbesteko tresna. Ikasle garaietan ikasitakoak bueltan ekarri egin behar izan ditugu.

Grafiko eta datu estatistikoak irakurri ditugu egunero. Hazkundeak noiz motelduko edo noiz beheranzkoa bilakatuko, maximoak noiz iritsiko, logaritmikoko zuzenaren azpitik noiz egongo zain egon gara.

Ikerketa estatistikoetatik inferentziak egiten aritu gara, oraindik ere, %60 horretarako bidea luzea dela konturatzeko. Herrialde bakoitzaren kurba konplexuak alderatzen aritu gara, albokoaren desgrazia ikusteak norberarena leuntzen zuelako edo.

Segurtasun distantziekin, berriz, geometriaz genekiena esnatu zaigu: azalera eta perimetroen krokisak egin ditugu eta, tartean, kilometro bateko zirkunferentziei tamaina hartu diegu.

Biologiatik ere tiratu behar izan dugu. Birusa ala bakteria, erretrobiral ala antibiotiko, bakuna eta metodo zientifikoaren urrats

motel eta sendo ala manipulatuaren inguruko iritziak garatu ditugu, Whatsappen hauspoarekin, betiere.

Politikan ez ezik geopolitikan ere jantzi gara. Konspirazioaren teoriak josten, makinazio ekonomikoak detektatzen eta *fake*-a bereizten aritu gara.

Segurtasuna, ahots irmoa eta ezagutza zientifikoa erakutsi duten politikarien diskurtsoak miresmenez entzun ditugu, eta astakeriak lotsa gabe esateko gai direnen hitzen aurrean irribarre txikia atera zaigu.

Alarma egoeraren neurri gogorrek nork lehenago eta hobeto ezarri erabakitzeke botere handiagoen eta txikiagoen arteko pultsua ere bertatik bertara sumatu dugu.

Euskararen erabilera ofiziala, langileen eta haurren eskubideak eta norbanakoaren askatasunaren kontzeptuak, gaur hutsik dauden ikasgeletako plastilina bezala, moldatu, apurtu eta deformatu daitezkeela ikusi dugu, gero, beharra dagoenean nahierara berrerabiltzeko.

Hala izan da, izaten ari da eta izango da. Denbora luzez, seguruen.

Beldur bat daukat, hala ere, beste guztien gainetik: pandemiaren gogorrean ikasitako apurrak ez ote ditugun berehala desikasiko. Geldi egon den Goliat ez ote den indarberrituta, denbora galtzen egon denaren antsiatz eta egarriz bueltatuko. Ez ote da hala izango; mesedez. Ez ote da hala izango. ■■■